noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

**Oarsoaldea-Buruntzaldea**

# Datorren igandean txotx denboraldia zabalduko da Hernanin

Aurtengo omenaldia 'Euskadi gaztea'ko lau esatari ezagunek jasoko dute

Ekitaldiak 11.00etan hasiko dira suziriekin, 12.30ean barrika zabalduko da eta herri kirolak egongo dira

Aitziber Muga - Jueves, 10 de Enero de 2013 - Actualizado a las 05:22h



Josune Bereziartua eskalatzaileak ireki zuen iaz denboraldia (Javi Colmenero)

Hernani. Datorren igandean Txotx Eguna ospatuko da Hernanin eta ekitaldi honekin hasiera emango zaio sagardotegien denboraldiari.

Festaren egitaraua aurreko urteetakoa izango da. Aldatzen den gauza nagusia omenduak dira. Aurten Txotx Batzordeak *Euskadi Gaztea*ko esatariak aukeratu di Gotzon, Ainhoa Vitoria eta Edurne Garmendia. Euskarazko komunikabideen lana oso garrantzitsua dela hizkuntza suspertzeko argudiatu dute.

Ekitaldia 11.00etan hasiko da eta jendea ohartarazteko suziriak botako dira. Ondoren trikitilariak arituko dira giroa alaitzen, 11.45ean Incansables txarangak lel herriko kaleetan barrena ibiliko da.

Ohi bezala, ekitaldi nagusiak 12.00etan hasiko dira. Omenduei udaletxean harrera xume bat egin ondoren, txalapartarien txanda izango da.

12.30ean, Doneztebe plazan, udaletxeko arkupeen ondoan *Euskadi Gazteak*o lau esatariek barrika zabaldu eta aurtengo sagardo berria dastatuko dute. Jarraian l aritzeko aukera izango dute.

Hernaniko Udalak garai honek irauten duen bitartean autobus zerbitzu berezia eskainiko du

13.00etan herri kirolen erakusketa egongo da eta, amaitzeko, Larre Gain sagardotegian bazkari bat egongo da.

Sagardo denboraldiak irauten duen bitartean Hernaniko erdigunetik herriko sagardotegietara doan autobus zerbitzua egongo da, baina oraindik ordutegia zehazt

Bestalde, Turismo sailak, iaz bezala, zenbait pakete turistiko prestatuko dituela aurreratu du. Produktu hauen bidez Hernani eta sagardoa ezagutzeko aukera iza

Oinez egiteko bisita gidatuak eskainiko dituzte, tren berdean ibilbide bat egitea edota sagardotegi batean bazkaria eta sagardo kata bat egiteko aukera egongo da

Baina txotx denboraldia hasten den bakoitzean beti izaten dira kaltetuak. Esaterako, kaxkoan bizi diren bizilagunak ez molestatzeko eta herriko altzariak ez pus urteetan egin den moduan, Udaltzaingo zerbitzua zabaldu eta egokituko da, ordutegi zehatzetan udaltzain kopurua gehituz. Ohiko komun publikoez gain, erdigu ezarriko dira.

Aparkalekuei dagokienez, kanpotik datozen autobusentzat aparkaleku bereziak egokituko dira eta kotxe partikularrean datozenei Karabel auzoan 280 autoentza erabiltzea gomendatzen diete (herri erdigunera gerturatzeko igogailua dago).

---

**Cargando comentarios...**

## Haz tu comentario

**Condiciones de uso**

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injurio cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

ComentariosNúmero de caracteres (500/500)

Soy usuario registrado

Introduce tus datos.

Quiero registrarme. Sólo tardarás un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

Usuario registrado

Correo electrónico Recordarme la próxima vez Contraseña ¿Olvidaste tu co

Enviar

¡Hecho!



Recibirás un correo electrónico para confirmar tu registro.

Enseguida te devolveremos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad

© Diario de Noticias-Edición Digital